

KOVID-19 estimulu-neurrien programa

Alokairuen kobrantza geroratzea

Gobernu Kontseiluak, martxoaren 24ko bilkuran, enpresei eta autonomoei zuzendutako neurri sorta bat ezartzea erabaki du, COVID-19k eragindako osasun-krisia eta geldialdi industrialaren ondoriozko krisi ekonomikoa arintzeko.

Zehazki, enpresen arloan, honako jarduketa hau sartzen da:

OBJEKTUA: industrialdeetako alokairuen kobrantza atzeratzea.

Neurri hori garatze aldera, SPRILUREk eta haren sozietate filialek beren bezero guztiei jakinarazten dizkiete neurri hori hartzeko ezarritako baldintza orokorrak eta prozedura:

ONURADUNAK: SPRILUREkin edo haren edozein sozietate filialekin errentamendu-kontratu soil bat edo erosteko aukera duen kontratu bat sinatuta eta indarrean duen pertsona fisiko edo juridiko oro, 2020ko otsailean dagozkion kuotak ordaintzen egunean dagoena.

Geroratzeko epea: 3 hilabete, beste 3 hilabete hartzeko aukerarekin.

2020KO APIRILEKO KUOTA: SPRILUREk eta sozietate filialek apirilari dagokion faktura jaulkiko dute 2. hamabostaldian, eta apirilako azken astean kobratuko dute, aurretik geroratzea eskatu ez bada.

GERORATUTAKO KUOTAK: nolanahi ere, SPRILUREk eta sozietate filialek, kuotak kobratzeko geroratze-eskaerak eta -emakidak alde batera utzita, hilerok fakturatzeko jarraituko dute sortutako zenbatekoak.

ATZERATZEKO ESKAERAK EGITEKO PROZEDURA:

- 1.- atzeratzeko eskaera egiteko epea jakinarazpen hau egiten den egunetik hasita hasiko da, eta 60 egun natural igaro arte iraungo du, osasun-alarmaren egoera kendu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- 2.- Interesdunak idazki bat bidali beharko dio errentatzaileari (SPRILUR edo sozietate filiala) (ahal dela posta elektronikoz, eskaeren tramitazioa arintzeko), hurrengo 3 kuoten ordainketa geroratzeko eskatuz, beste hiru gehiago luzatzeko aukerarekin, eskaera justifikatzeko memoria labur batekin batera (orrialde 1 gehienez).
- 3.- SPRILUREk, edo sozietate filialak, eskaeraren berri emango du, eta eskatzailearekin bilduko da ahalik eta lasterren, eskaera aztertzeko eta geroratzearen baldintzak erabakitzeko.

4.- SPRILUREk edo sozietate filialak, eskatzailearekin adostu ondoren, kuotak geroratzea erabakiko du, eta, horretarako, behar diren agiriak sinatuko ditu.

5.- Oro har:

- Errentamendu-kontratu soilen errentamendu-kuotak geroratzen direnean, atzeratutako kuotak zati berdinetan berreskuratuko dira kontratua indarrean dagoen gainerako hilabeteetan, edo horretarako onartutako ordainketa-egutegiaren arabera.
- Urte anitzeko iraupen sinpleko errentamendu-kontratuetan, geroratutako kuotak berreskurtzeko epeak, lehenik eta behin eta jabetzaren irizpidearen arabera, kontratu bakoitzaren berezko ezaugarriak hartuko ditu kontuan (indarraldia, funtsean), eta berreskurtzeko gehieneko epea 4 urtekoa izango da.
- Kontratua amaitu arte geratzen den epea urtebetetik beherakoa bada, alderdiek dagokion luzapena adostu ahal izango dute, eta luzapen hori ezin izango da inolaz ere izan jatorrizko kontratuaren indarraldia baino luzeagoa.
- Erosteke aukera ematen duten errentamendu-kontratuen errentamendu-kuotak geroratzen direnean, geroratutako kuotak berreskurtu egingo dira kontratua indarrean dagoen gainerako hilabeteetan, ordainketa-egutegiaren edo horretarako onartutako finantzaketa-taula berriaren arabera.
- Atzeratutako kuotek, kontratu mota guztietan, ez dute inolako interesik sortuko.

Horri buruzko kontsulta edo argibideren bat nahi izanez gero, honako helbide elektronikoa honetara jo dezakezu, ahal izanez gero: sprilur@spri.eus , edo, osasun-alarmaren egoera kentzen denetik aurrera, errentamendu-kontratua duen sozietatearen telefonora.

2020ko martxoak 26